


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 9a / 539. zenbakia



Aldaketak

San Joxepeko
erretiratuen
erronka:
elkartearen
funtzionamendua
hobetzea

BERGARA HIRIA: **FINALERDIAK MARTITZENEAN/10** • JARDUN: **EIDER CARRASCOK MARRAZKI ONENA/12**



Bergara aldatzeko sasoia da.

BERGARAKO



ARALAR

Dietetika kontsulta berria zabalik Antzuolan

- PISUA GALTZEKO DIETAK
- PISUA IRABAZTEKO DIETAK
- HEZIKETA NUTRIZIONALA
- HAURDUNALDIRAKO ELIKADURA
- KIROLARIENTZAKO DIETAK
- ERRELEBOKO LANGILEENTZAKO DIETAK
- OSASUN ARAZOETARAKO AHOLKULARITZA:
(KOLESTEROLA, DIABETEIA, HIPERTENTSIOA, AZIDO URIKOA)
- JARRAI PEN PERTSONALIZATUA
- ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
- IKASTAROAK...

(...)

mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943.76.60.45
(m) 646.43.34.58

mireialber@euskalnet.net
Olaran etxea, harriko plaza 3
ANTZUOLA



ATREBENTZIAEZPADA/ Herriko dendetara juten zarenian euskeraz egitten dozu?



ARGIÑE VARELA
16 urte

Batzutan euskeraz eta beste batzutan erderaz. Momentuan irtetzen jatena. Dana dala, askotan be dendarixan arabera da: euskeraz ez dakixela baldin badaikit, erderaz egitten dot.



OLATZ BELDARRAIN
33 urte

Euskeraz normalian. Baldin badakit erdeliduna dala erderaz egitten dotsat, bestela euskeraz. Normalian, Bergaran, denda gehixenetan dakixe euskeraz, gutxiak die ez dakixenak.




ETOR LARRAÑAGA
25 urte

Beti egitten dot euskeraz. Nahiz eta jakin dendarixak ez dakixela, askotan euskeraz urtetzen jat. Hemen dendarix gehixenek ulertu egitten dabe, nahiz eta luze berba egitteko erderaz egin.



ESTHER AGIRRE
30 urte

Erderaz egitten dot ixa beti. Nik uste ohituriagaittik dala gehixenbat. Eta horretaz aparte badakittelako dendarix sartu eta hango dendarixak euskeraz dakixen edo ez.



ENAITZ EZPELETA
16 urte

Nik uste dot gehixenetan euskeraz egitten dotela. Erderaz bakarrik egitten dot dendarixak ez dakixenian. Baiña hemen gehixenetan dakixe euskeraz denda eta tabernetan.



ITZIAR JAUREGI
20 urte

Normalian euskeraz egitten dot. Dendarix erdeliduna dala baldin badakit erderaz egitten dot, baiña bestela euskeraz. Gaiñera, hemen inguruan denda gehixenetan dakixe.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ERROTALDE, ZIKIN Eguraldi onarekin batera, gazte ugari egoten da Errotalde parkean. Tokia benetan aproposa da lagunartean lasai-lasai egoteko, baina batzuek ezin dute parkea aurkitu duten bezala laga. Litzarrerriak jan eta zorroak lurrera botatzeko ohitura dute, eta guztia zikintzen dute. Zakarrontziak badira, baina esfortzu handia ei da hamar urrats ematea zakarrontzietara hurbiltzeko. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /10

KULTURA /12

Euskara bultzatzen

Udalak laguntzak emango ditu denda, enpresa eta establezimendu eta errotoak euskalduntzeko.

Bergara Hiriko finalerdiak

Iker Azagirre, Ander Muguruza eta Igor Gutiérrez pilotariak Bergara Hiriko finalerdietan izango dira.

Pazkoetako kamisetak

Eider Carrascok irabazi du Jardunek antolatutako Pazkoetako Kamisetarako Marrazki Lehiaketa.

ASTEKODATUA

155

LITRO M2KO JASO DIRA HIRU EGUNEAN BERGARAN

Domekatik martitzenera bitartean euri gehiago egin du martxo eta apirilko hilabeteak batuta baino. Esandako hiru egunetan 155 l/m² jaso dira eta martxoan eta apirilean, 136 l/m².

BESTEKEESANA

“Epaileek diote lehenago ministroek esan zutena, eta baita fiskal jeneralak esan zuena, Aznarrek hari

esan eta gero. Guztiek diote independentismoarekin eta autodeterminazio eskubidearekin konprometitu diren euskal herritar guztiek kutsatu egiten dituztela parte hartzen duten foroak, partaide diren taldeak, eta deskuidatuz gero, lagun taldea ere bai. Agintari espainolen iritziz agente kutsagarriak dira, giza izurridunak, legendarun politikoak, zeinei txintzarria jarri beharko litzaiekeen lepoan jendeak ekidin ahal izateko. (...)

Baina ez duenez ofenditzen nahi duenak, ahal duenak baizik, gogorarazi beharko zaie ez dagoela ezer min gutxiago ematen duenik tahir jolas batetik kaleratua izateak baino.
MARTIN GARITANO / Kazetaria
'Gara'/03-05-06

BERAIEKIDŨOE/ Aitziber Azkondo



Freskura hauteskundeetan...

Bi aste barru ospatuko ditugu. Azken asteetako gertakizunek eta bide batez, gaurkotasunak horrela eskatu arren, ez nuen gai honen inguruan idazteko asmorik. Egia esan, azken albisteak gogoratuz bat, politikarekin zerikusia duen edozer gauza baztertzera behartu dut nire burua, edo gutxienez urrun izatera. Gauza askoren erruz politika gustuko ez du dan gaia bihurtu da azkenaldian. Horrenbeste etsipen.

Baztertzeko ahalgina egin dudala esan dezagun. Baina ahalginak ahalgin hutsean gelditzen dira askotan nahi eta nahiez. Bizi garen tokian bizi izanda, gainera, ezinezkoa da eragin gabekoa izatea.

Harira joanez, nik neuk behintzat herriko hauteskundeak "politikoak" izan arren, ez ditut orokorrak eta gainerako hauteskundeak modu berean sentitzen. Gehienok elkar ezagutzen dugu eta horrek eragin handia du bozketara iritsi eta izen edo zerrenda bat edo beste aukera-

tzean, alderdiari so gutxiago egiten diogu, batzuk behintzat, eta tartean, ni neu. Jakina, udala daukagun autonomi txikiena da eta nire ordezkari politiko gertukoak aukeratuko ditut.

Hori horrela, nire susmoek ez badidate huts egiten, hauteskunde emaitzek ez dute ez-ustekorik ekarriko. Hala ere, berri polit eta gustuko bat izan nuen duela astebete GOIENKARI-An kaleratu ziren alkate gaiak zein ziren jakin nuenean. Betikoak, eta betikoen artean emakume gazte bat. Gaztea, abokatua eta konprometitua (jakinaren gainean hitz egiten dihardut). Neska, ezkutuan zeneukan ala? Ze sorpresa!

Freskotasuna behar dugula iruditzen zait! Aurpegi berriak ikuspegi politikoan. Pluraltasuna eskatzen dugu ezta? Ba pluraltasuna izan dezagun! Badakit hau ez dela politikaren politika baina horrela sentitzen dut eta horrela izan beharko litzateke. Politika elikatzeke ordua bada. Berrindartu behar denarena. Eki- men berrietan oinarritu. Herriaren mesederako beti ere.

“Freskotasuna behar dugula iruditzen zait! Aurpegi berriak behar ditugula ikuspegi politikoan”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberebizar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 9**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ZAPATUA, 10**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 11**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 12**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 13**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 14**
CAMACHO. Oxirodo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 15**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea. Bergara. 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------|----------------------|
| San Pedro | Labegaraieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: 20:00. |
| lanegunak: | Angiozar |
| 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Sierbak | Moja Zaharrak |
| Lanegunak: 19:15. | Lanegunak: 09:00. |
| Zapatuak: | Zapatuak: 11:00. |
| 19:00. | Mizpirualde |
| Domekak: | Lanegunak: 11:45. |
| 11:30, 13:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu | Antzuola |
| Domekak: 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 09:00, 11:30. |
| Elosu | Zapatuak eta |
| Domekak: 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOAK
1949an jaiotakoen bazkaria maiatzaren 10ean, Tartu-fon. Bazkarira joateko autobusa frontoitik irtengoda, 14:30ean.

1958AN JAIOTAKOAK
1958an jaiotakoen afaria maiatzaren 17an, Antxonin. Izenematea Antxonin, 12 euro ordainduta. Egunean bertan Antxonin elkartuko dira, 20:00etan.

1968AN JAIOTAKOAK
1968an jaiotakoen afaria maiatzaren 24an, Batzokian, 22:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan irekitako kontuan (0091106953 zenbakian) egin daiteke, 20 euro ordainduta. Izena emateko epea maiatzaren 16ra arte zabalik. Egunean bertan Ganbara tabernan elkartuko dira, 19:30ean.

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotakoen afaria maiatzaren 31n, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza izango da, Sierbetan, 19:00etan. Izenematea (15 euro) Mizpildin, Edelen edo Azpeitxin.

ODOL ATERATZEA
Hurrengo odol ateratzea maiatzaren 14an izango da, Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Txapliguko gaztetxoek Arraten pasatuko dute aste bukaera. Irteera bihar, zapatua, Beheko Estazioan, 10:00etan. Bestalde, Txiskri-labi taldekoendako jolasak izango dira bihar, zapatua, Udal Euskaltegian, 16:00etatik 20:00etara. Azkenik, Herri Urratsen lagundu nahi dutenek 943 76 36 61 zenbakira dei dezakete.


URBANOENORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Justo Garatek erbestean idatzitako lanak, argitara

Justo Garate mediku bergararrak erbestean, Argentinan, idatzitako artikulu eta ikerketak argitaratzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. *Amerika eta euskaldunak* programaren barruan, Garateren gaineko lana *La cultura del exilio* bildumako hamahirugarren alea izan zen.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pausajia"



Ibiltzeko era, baldarra denean. — *Solamentian eztauka pausaje jaso-jasua.*

ASTEKOFILMAK

'CHICAGO'

ZUZENDARIA: ROB MARSHALL.
AKTOREAK: RENÉE ZELLWEGER, CATHERINE ZETA-JONES, RICHARD GERE.

HARIA. Oscarretan film onenaren saria jaso zuen musikala. *Roxie Hart* aktore xumea da, eta kabareteko izar bihurtu nahi du. Espe-txean hainbat amets izango ditu...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAZIOA: ●●●●●



'EL SUEÑO DE VALENTIN'

ZUZENDARIA: ALEJANDRO AGRESTI.
AKTOREAK: CARMEN MAURA, JULIETA CARDINALI.

HARIA. Valentín 9 urteko mutikoa da. Amonarekin bizi da, 60ko hamarkadako Argentinan. Ama desagertua, neska-lagun dabiltzen aita eta osaba dira Valentinen inguruko pertsonaiak.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hilak 15, 20:00etan. Zineklubeko emanaldia.

PUNTAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com



Bergarako jaietan Saloura 2003

Ekainaren 6tik 10era



Eta gainera...

**Port
Aventura**

eta

Costa Caribe

parke berrirako

**PREZIO
BEREZIAK**



*Hau bai
aukera!*

San Diego hotela	132,50
San Francisco hotela	132,50
Los Angeles hotela.	135,70
Jaime I hotela.	140,60
Mediterraneo hotela	144,70
Las Vegas hotela	152,90
Augustus Park hotela.	157,50
Europa Park hotela	159,70
Belvedere hotela	161,30
Michelangelo apart-hotela	164,30
Olimpus Palace hotela	169,10
Davinci apart-hotela.	172,10
Blaumar apart-hotela	212,70

Luxuzko autopulmana eta mantenu osoa prezioan sartuta daude

Umeentzako eta hirugarren eta laugarren lagunentzako **deskontuak!**

Kontsulta itzazu beste hotel batzuetako egonaldien prezioak

Bidaia aseguru



Informazioa eta erreserbak Ecuador Bidaiak-en
943 76 44 45 / 943 76 15 33

Arruriaga 10. BERGARA

EUSKARA/ Errotuluak eta irudi korporatiboa euskalduntzen dutenei dirulaguntzak emango dizkie

Errotuluak eta irudi korporatiboak euskalduntzeko kanpaina hasi du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Kanpaina horren bidez Udalak dirulaguntzak emango dizkie errotuluak eta irudi korporatiboa euskalduntzen duten herriko denda, enpresa eta establezimenduei. Laguntza eskaerak egiteko epea zabalik dago, eta urte bukaera aldera itxiko dute.

Euskara Zerbitzuak egindako kanpaina da, eta enpresa edo establezimenduetan euskararen presentzia areagotzea du helburu. Euskara Zerbitzuko arduradunen iritziz, Bergara gero eta euskaldunagoa da; herriko bezero gehienak euskaldunak dira eta etorkizunean ia denak izango dira euskaldunak. Hala ere, denda, enpresa eta establezimenduetan euskararen presentzia ez da oraindik nahi bezain sendoa. Oraindik ere lan handia egiteko dagoela uste dute, eta denon parte-hartzea beharrezkoa dela.

Hori horrela, Udalak ere ekarpena egin nahi izan du zeregin horretan, eta kanpaina abian jarzea erabaki du. Kanpaina horren bidez, Udalak dirulaguntzak emango dizkie errotuluak eta irudi korporatiboa euskalduntzen dituzten herriko denda, enpresa eta establezimenduei.

ERROTULUAK EUSKARTZEKO LAGUNTZA
Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan, kanpoko



Kanpoko errotuluak euskaratzeko laguntzok eskuratu nahi izanez gero, urtea amaitu baino lehen egin behar da eskaera.

errotulua edo barruko errotulua euskara hutsez jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak. Betiere, dirulaguntza gehienez 300 eurokoa izango da.

Onuradun izateko honako baldintzak hartu behar dira kontuan: errotuluko testuak zuzen idatzita egon beharko du; izaera

Laguntza eskaerak egiteko epea urte amaiera aldera bukatuko da

ez ofizialeko entitateek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzok; errotuluan izen propioa agertzen bada bakarrik, ez da inolako laguntzarik emango, eta bateraezina izango dira Udalak eman lezakeen laguntza eta publizitatearen izenean errotulu beragatik enpresa batek eman lezakeena.

IRUDI KORPORATIBOA EUSKALDUNTZEKO LAGUNTZA

Irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzei dagokionez, honako hauek hartzen ditu Udalak irudi korporatiboaren elementutzat: gutun-azalak, paperetako idazpurua, bisita-txartelak, identifikazio-zigilua, inprimakiak, produktuak biltzeko papera, poltsak eta ibilgailuen errotulazioa.

Poltsak euskara hutsean jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak eta laguntza gehienez 300 eurokoa izango da. Irudi korporatiboaren gainerako elementuren bat euskaraz jarriz gero, edo euskarari lehentasuna emanez gero -tokia, neurria, intentsitatea...-, kostuaren %50 ordainduko du Udalak eta horretan ere laguntza gehienez 300 eurokoa izango da.

LAGUNTZOK ESKATZEKO EPEA ZABALIK

Urtea amaitu aurretik aurkeztu beharko dira eskabideak, aterako materialaren ale batekin eta fakturaren kopiarekin. Dena dela, poltsak, txartelak eta gainerako materiala ateratzerakoan atzerapenak egonez gero eta fakturaren kopia eta materialaren ale urtearen amaiera baino lehen ezin bada aurkeztu, 2004ko urtarrilaren 31ra arteko epea egongo da horiek aurkezteko. Hala ere, fakturak 2003ko data izan beharko dute. Edozelan ere, eskabideak 2003ko amaierarako aurkeztu beharko dira.



Javier Garai izango da PSE-EEren alkategaia udal hauteskundeetan

Astelehenean aurkeztu zuten sozialistek Javier Garai. PSE-EE alderdiko zinegotzi izan da azkeneko bi urteotan, Alvaro Espartzak dimititu zuenetik. Hauxe da alkatezara aurkeztu den lehen aldia. Zerrendako bigarrena Jose Antonio Romero da eta hirugarrena, Sonia Conde eibartarra (lehen ezkerretik). Ekitaldian Manuel Huertas Gipuzkoako idazkari nagusia ere egon zen.

Egunkari berrirako 48.240 euro lortu nahi dituzte herrian

MONIKA BELASTEGI

Egunkari berria abiarazteko Berria berri akzio salmenta kanpainari ekin zioten eguztenean. Guztira bost milioi euro jasotzeko helburua dute. Kopuru horretatik, Bergaran 48.240 euro batu nahi dituzte.

Proiektu berrian parte hartu nahi duenak eskura izango ditu gaurtik aurrera akzioak Bergaran. 50 eta 300 euroko akzioak dira eta hiru lekutan eskura daitezke: alde batetik, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko Herri Batzordeak zapatu goizetan San Martin plazan jartzen duen mahaietan. 11:30etik 13:30era bitartean egongo dira plazan, eta, ohiko kamiseta, pegatina eta bestelako materialaz gain, akzioak eskuratzeko aukera ere egongo da.

Bestetik, Akulu AEK euskaltégian (943 76 05 18); eta, hirugarrenetik, Jardun euskara elkartearen (943 76 08 19).

Hori Bergarari dagokionez, baina badira akzioak lortzeko beste bi modu ere: www.ektsa.net helbidean eta 635 73 33 85 eta 635 73 33 86 telefono zenbakietan.

ZELAN EROSI AKZIOAK

Akzioak erosteko orduan, eskura ordain daitezke edo kontu-korronteko zenbakia eman daitezke. Bestalde, 50 euroko akzioen kasuan, ordainketa bakarra egongo da, baina 300 eurokoak dagokionez, sei hilabetean ordaintzeko aukera egongo da. Akzio biltzeta ekainaren amaiera aldera bukatuko da, eta akzioak eskuratu dituzten guztiek ziurtagiria jasoko dute.

Bestetik, aurrez 50 eta 300 euroko bono-laguntzak erosi zituztenen kasuan, akziotan kapitalizatuko zaie dirua.

Horrez guztiaz gainera, Herri Batzordeak herritarren laguntza eta inplikazioa eskatu du, eta batzar ireki baterako dei egongo duela aurreratu du.

Lurralde Planari alegazioak egin dizkio Udalak eta berria idazteko eskatu du

MONIKA BELASTEGI

Udalak hainbat alegazio egin dizkio Planari. Desadostasun nagusiak industriarako eta etxebizitzetarako lurren gainean dira. Bestalde, hainbat gune-tan egingo diren proiektuen zehaztasunik eza kritikatzan du.

Osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak alegazioak, EAJ/EA eta PSE-EE alderdien aldeko botoarekin eta Sozialista Abertzaleen abstentzioarekin. Debagoieneko Zatik Lurralde Planari urtarrilaren 14an eman zion hasierako onarpena Eusko Jaurlaritzak, eta han jasotzen dira Debagoienak datozen 16 urteotan izango duen garapenaren ildo nagusiak: oro har eskualdeak izango duen garapena, baita eskualdeko herri bakoitzarena ere. Baina ez eskualde mailan ezta Bergaran ere ez du harrera onik izan.

Bergarako Udalaren iritziz, Jaurlaritzak eta Aldundiek idatzitako txosten hori ez dator bat "azken urteetako lanaren ondorioz Udalak egin dituen planteamenduekin eta aurreikuspenekin. Kontuan izanda, gainera, planteamendu eta aurreikuspen



Lur industrialen kasuan, industriaguneak "orban"-tzat jotzen ditu Planak.

ARTXIBOA

horiek Arau Subsidiarioen berri-kuspenerako oinarria izango direla". Horrekin guztiarekin, Udal arduradunek Planari hasierako onarpena emateari "goragoko administrazioen mutur sartzea" iritzi diote. Horrela, hasierako onar-

pen hori bertan behera uzteko eta beste bat idazteko eskatu dute.

HERRI MAILAKO ALEGAZIOAK

Kezka orokorrez gain, zuzenean Bergarari dagozkion hainbat gairen gaineko alegazioak aurkeztu

ditu Udalak. Honakoak, besteak beste: Elorregi auzoan estazio intermodala, aisialdirako gunea eta informazio gunea egiteko asmoa jasotzen du planak. Baina Udalaren iritziz, proposamena garbi definitu barik dago: "Hartuko lukeen eremua ez du zehazten, ezta eraikitze epeak ere, ezta kudeaketa sistema ere". Horren aurrean galdera bat sortu zaie Udal agintariei: Tavex ordenaziotik kanpo utzi beharko da Arau Subsidiarioak berraztertzean?

Etxebizitzaren gaia ere ez da Udalaren gustuko izan. Planak dio Antzuola eta Elgeta bultzatzea dituela helburu Bergararen behin betiko kongestioa ekiditeko. Udalak ez du kongestioarena ulertu: "Etxeak eraikitze hainbat proiektu martxan egonda, gainera".

Etxebizitzak egiteko lur berrien kasuan, Planak Algodonera ingurua bakarrik aipatzen du, eta Udalak gogorarazi nahi izan du Tornilleria Debaren orubea eta Mariaren Lagundiko hainbat lur birmoldatzeko azterketa bat egiten dihardutela.

Industria lurren kasuan, industriaguneak "orban"-tzat jotzen dituzte Udalak eta dio horrek baldintzatzen egiten duela enpresen tamaina.

LABUR

Zerrenden baliogabetzea salatzekeo deiak

AuBren eta herri plataformen zerrendak baliogabetu eta legez kanporatu dituztela salatzeko hainbat mobilizazio izango dira gaur, egubakoitza. Goizerako bi orduko lanuztea zegoen iragarrita, eta manifestazioa 12:00etan.

Arratsaldean ere izango dira hainbat mobilizazio: 19:00etan, manifestazioa abiatuko da San Martin plazatik. Horrez gain, bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestazioarako autobusa antolatuta dute. Txartelak: Arranon, Pol-Polen eta Kortazarren.

Kapea-irteera Larragara, Zezen zaleak taldearekin

Zezen zaleak taldeak kapea-irteera antolatu du Larragara La Serna finkara. Irteera maiatzaren 17an izango da, eta parte hartu nahi duenak maiatzaren 14a baino lehen eman beharko du izena Gaborra kafetegian. Prezioa 45 eurokoa da eta izena emate-rakoan ordaindu behar da. Irteeraren egitaraua ondorengoa da: 08:30ean, irteera Fraiskozuritik; 10:30ean, hamarretakoa; 11:30ean, abeltzera bisita; 12:30ean, zezen-txoen askatzea; 13:30ean, txikiteoa herrian; 14:30ean, bazkaria; eta 16:30ean, kapea.

Moda desfilea nesken futbola bultzatzeko asmoz

Nesken futbola bultzatzeko asmoz moda desfilea antolatu dute hainbat futbolzalek. Herriko denda gehienek hartuko dute parte, eta datorren zapatuan, maiatzaren 17an, izango da, 22:00etan, Jam aretoan. Sarrerak hiru euro balio du, eta desfilearen ondoren disko-festa egongo da. Jasotako diruarekin emakumeen futbola indartu nahi dute.



González de Txabarri herrian

Joxe Joan González de Txabarri, EAJ/EA koalizioaren diputatu nagusirako hautagaia, Bergaran egon zen martitzen eguerdian.

Uliazpi Fundazioak Espoioian zabaldu berri duen egoitzan egon zen lehenik. Horren ondoren, San Joxepe erretiratuaren egoitzara hurreratu zen. Han, egoitza ikusi eta San Joxepe elkartereko Zuzendaritzako ordezkariekin bazkaldu zuen. Bisitan Victoriano Gallastegi alkatea izan zuen lagun hautagaiak, ondoko argazkian ikusten denez.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Plater konbinatuak
Oilasko erreak eramateko



Simon Arrieta plaza 2A behean ezkerrean.
Tf. 943 76 71 19

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



JARDUNEKO GAZTETXOAK ORION

Jarduneko Txiskrilabi taldekoek hiru eguneko egonaldia egin zuten Orioko kanpinean, apirilaren 22tik 24ra. 16 urteko hamar lagun joan ziren hara, Ugaitz Catalán eta Ainhoa Alberdi begiraleen laguntzarekin. Argazkian ikusten den bezala, lasai-lasai eta giro onean ibili ziren, hainbat jarduera egin eta euren arteko harremanak sendotuz. Ez da gutxi!



MUSIKA ESKOLAKOAK ALCALAN

Musika Eskolako Orkestrakoak Alcalá de Henaresen egon ziren Pazko astean. Irakasleen eta gurasoen laguntzarekin 47 musikari joan ziren, eta Alcalako Unibertsitatean kontzertua eskaini zuten apirilaren 25ean. Musika aretoa jendez gainezka egon zen eta Orkestrak txalo zaparrada luzea jaso zuen. Argazkian, Eugenio Allés Orkestrako presidentea Alcalako ordezkariarekin opariak trukatzeko. Bergararrek Alcalá eta Warner parkea bisitatzeko aukera izan zuten, eta primeran ibili ziren. Esperientzia errepikatzeko gogoz itzuli dira.



POL-POLEKO BETERANOAK ETA GAZTETXOAK

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteteranoak Gredos aldean ibili dira Maiatzaren Leheneko zubian. Avilako Piedrahita herrian jarri zuten kanpamentu nagusia eta handik hainbat irteera egin zituzten. Besteak beste, Mira, Moceron eta Calvitero (Salamanca) mendietako gailurrak zapaldu dituzte. Goiko argazkia Mira mendian ateratakoa da. 46 lagun joan ziren Avilara, eta ondo baino hobeto ibili dira. Hurrengo irteera Kantabriara egingo dute, Astrana eta Ribara, hain zuzen, maiatzaren 25ean. Bestalde, Pol-Poleko gaztetxoak ere sasoi betean daude. Aste Santuaren aurretik Lizarrustira eta Larraitzera irteera egin zuten, eta hor dituzue, Larraitzen, kamiseta berriak harro-harro erakusten.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



Maria Eugenia Gracia

NEURRI DENDAKOA

Gaztetan Ebaketa eta Jantzigintza ikasi zuen Ana Mari Gallastegi jostunarekin, eta otsailean denda ireki zuen San Pedro kalean. Josteko makina, orratza eta hariarekin ondo konponzen dela diosku Maria Eugeniak. Bi seme-alaba dauzka.

Jostea eta jantziak konpontzea emakumeen gauza dira?
Zoritxarrez, bai. Gizonezko jostunak beti egon izan dira, baina gizonek ez dute Ebaketa eta Jantzigintza ikasten gaur egun. **Bezeroen artean, emakumeak ala gizonak dira nagusi?**
Antzera.

Egiten dituzun lanetatik zailena?
Txamarren kremaierak eta mahukak eta lepoak mugitzea. **Zure lanerako beharrezko dohaina?**

Lana gustuko izatea, oso sakrifikatua delako. Eta gauzak konpontzeko sormena ere ondo dator.

Gustuko jantzi bat? Kolore gustukoena?

Prakak. Kolorea? Beltzetik urruntzen ahalegintzen nabil.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Duintasunez bizi izateari.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Nahiko alferra naiz, eta naturaz lasai gozatzea gustuko dut.

Euskal Herriko toki bat?

Arantza, Nafarroan, Bera ondoan.

Pertsonaia historiko bat?

Che Guevara; gure belaunaldikoendako oso berezia izan zen.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egiazaletasuna eta norberaren ideiekin koherentea izatea.

Egunkarian zer irakurtzen duzu lehenbizi?

Titularrak eta Euskal Herriko albisteak.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Plantxatzea.

Sukaldari ona zara? Janari eta edari bana?

Besteek esan behar, baina baietz uste dut, ez dira kexatzen-eta.

Okelazalea naiz: jateko, azpizuna eta edateko, Errioxa ardo ona.

Aste bukaera baterako plan ideala?

Kostaldera joan, Ondarroara edo Lekeitiora, jateko txoko on bat topatu eta paseo bat eman.

Udan nora joango zinateke oporretara?

Noizbait Kubara joateko ametsa daukat, baina Euskal Herrian geratuko naiz, ziurrenik; gustura, gainera.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Josune Ena

KUBA / 2002ko abuztuan

Joan den urtean, abuztuan, joan ginen Jon laguna eta biok Kubara. Hilabete pasatxo egin genuen han, gure kontura uharterko mendebala ezagutzeko asmoz. Nagusiki Pinar del Rio probintziaren inguruan ibili ginen. Lehenbiziko egunak Habanan eman genituen, Befgaran bizi den emakume kubatar baten bitartez harremanetan jarri ginen familia batekin, hain zuzen. Habana hiri ederra da, nahiz eta hainbat eraikin nahiko kaskar egon. Hala ere, xarma berezia duen hiria da, eta Habana Zaharra deritzona eta Iraultzaren plaza gustatu zitzaizkigun, bereziki. Gauza txar bat ere badauka: turista asko dabil han eta zaila da dolar bila dabiltzan kubatarrek gainera kentzea. Turismo txikiko tokietan lasaia gozatu ibili daiteke Kuban.

Kubatik Pinar del Rio probintziara joan ginen. Toki bateatik bestera taxian, autobusean eta kubatarren autoetan joaten ginen. Benetan ikustekoak dira hango autoak: XX. mendeko lehen erdialdeko autoak zahar mordoak dago eta harrigarria da oraindik ere haiek martxan ikustea. Pinar del Rion, besteak beste, Las Terrazasen, Soroan (konplexu turistiko bat) eta Viñales-en egon ginen. Viñales ibarra oso polita da. Familia kubatar baten etxean egon ginen eta primeran hartu gin-



“Mendebalean ibili ginen: Habanatik Pinar del Rio probintziara joan ginen”


“Kubatarrek luzaro berba egitea gustuko dute; rona eta berriketa nahikoa dute ondo pasatzeko”

sutsuak direla esango nuke. Kolonial estiloa duen Trinidad hiria asko gustatu zitzaigun. Galtzadharria eta etxe ederrak dituen hiria da. Azken egunak, berriz, Varaderon eman genituen, lasai-lasai.

EDU MENDIBIL



Jon Suinaga eta Josune Ena Viñalesko familia kubatar batekin.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3
943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4
943 76 37 53





ESKUBALOI SAILA

Senior mailako nesken taldeak Elgoibarren aurka jokatu du domekan Labegarietan, 12:15ean.

Kopako txapelketako bi eskubaloi partidu jokatu dira kiroldegian

Senior mailako neskek eta kadete mailako mutilak Elgoibar eta Arrasate hartuko dituzte

EDU MENDIBIL

Bergara KEko eskubaloi taldeek Kopa Txapelketari ekin diote eta aste bukaeran bi partidu izango dira kiroldegian: kadete mailako mutilak bihar eta senior mailako neskek etzi jokatu dute.

Kopa Txapelketarako kadete mailako mutilen taldea dugu bergararren nobedadea. Ligan ez du jokatu, eta Kopan jokatzeko taldea osatu dute. Mikel Agirrezabal eta Ruben Sánchez dira taldeko entrenatzaileak. Orain arte

jokatutako bi partiduak galdu egin dituzte. Bihar, zapatua, lehen garaipena eskuratzeko aukera izango dute, Arrasateren aurka, Labegarietan, 10:30ean.

Domekan, berriz, senior mailako nesken txanda izango da: aurreko jardunaldian Leitzarani irabazi zieten (16-32) eta domekan Elgoibarren aurka neurtuko dituzte indarrak, 12:15ean. Liga Txapelketan jokatuak bi partiduak galdu egin zituzten mahoneroek elgoibartarren aurka. Edozelan ere, Kopa Txapelketa txukuna egiteko itxaropena daukate etxeok.

BOST TALDE KOPAN

Eskubaloi Saileko bost taldek dihardute Kopan. Kopa Txapelketa ez da kanporaketa sistemarekin jokatzen, liga sistema jarraituta baizik. Josetxo Muniategi gazte mailako mutilen taldeko entrenatzaileak zera esan digu: "Badakigu zaila izango dela talderen bat finalerako sailkatzea, eta gure helburu nagusia datorren denboraldiari begira taldeak sendotzea eta jokalariek esperientzia hartzea da". Gazte mailako mutilak eta kadete mailako neskek Kopan orain arte jokatuak bi partiduak irabazi egin dituzte.

Azagirre, Muguruza eta Gutiérrez, Bergara Hiriko finalerdietan

E.M.

Iker Azagirre, Ander Muguruza eta Igor Gutiérrez pilotari bergararrak Bergara Hiria txapelketako finalerdietarako sailkatu dira. Finalerdiak maiatzaren 13an eta 20an izango dira Udal Pilotalekuan.

Iker Azagirrek Esnaola beasaindarrarekin osatzen du bikotea 22 urtetik azpikoetan, eta martitzenean, hilaren 13an, Asperen eta Errarteren aurka jokatu dute Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Gero nagusien lehenbiziko finalerdia jokatu da: Igor Gutiérrezek eta Enrike Huizik Martínez de Irujoren eta Okiñenaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Hurrengo martitzenean, hilaren 20an, beste bi finalerdiak jokatu dira: 22 urtetik azpikoetan, Arretxe-Muxika eta Retegi-Urrizalki izango dira aurrez aurre, eta nagusietan, Ander Muruguzak



ARTXIBOA

Bergara KEko pilotariak Aretxabaletan jokatu dute hurrengo astean.

eta Zapirainek Eguzkitzaren eta Erauzkinen kontra jokatu dute.

DEBARROKO TXAPELKETA GAUR

Gaur, egubakoitza, Debarroko Txapelketan, Bergarako eta Arrasateko pilotarien arteko parti-

dua izango da Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Gazte eta senior mailako partiduak jokatu dira.

Bestalde, Bergarak Aretxabaletaren aurka jokatu du Herri Arteko Txapelketako lehen kanporaketa hurrengo astean.

Bergara-Reala gazte mailako partidua domekan Agorrosinen

E.M.

Kopa Txapelketan, Bergara KEko gazte mailako taldeak Realaren aurka jokatu du domekan Agorrosinen, 16:30ean. Prefereente mailako taldeak, berriz, Touringen aurka jokatu du bihar, ordu berean.

Zapatuan Tolosaren aurka galdu ondoren (1-0), preferente mailako taldeak zaila izango du bigarren postua eskuratzeko. Hiru jardunaldi besterik ez da falta eta mahoneroak hirugarren dira sailkapenean, 63 punturekin, Pasajesen (74) eta Tolosaren (67) atzetik. Zapatuan hiru puntuak eskuratzeko da bergararren asmoa.

Zapatuan beste bi partidu jokatu dira Ipintzan: Bergara-Billabona lehen mailako kadeteen artekoa, 11:30ean, eta Bergara-Gure Txokoa bigarren mailako kadeteena, 18:15ean.

Domekan, berriz, Euskal Ligan jardun duen gazte mailako taldeak Realaren aurka jokatu du Agorrosinen, 16:30ean. Ligan mailaz jaitsi badira ere, bergararrek euren maila onena azaldu nahi dute Kopan, baina domekan ez dute aurkari erraza izango. Hala ere, txuri-urdinen kontra jokatzeko betiere motibagarria izaten da.

ARANZADIKO NESKAK FINALERA

Bestalde, Aranzadi Ikastolako infantil mailako nesken futbol taldeak Gipuzkoako Eskola Arteko finala jokatu du bihar, zapatua, Donostian, Oretaren aurka. Finala Herrerako futbol zelaian jokatu da, 10:45ean, eta partidua ikustera joan nahi dutenentako autobusa irtengo da geltokitik 08:45ean. Mikel Gotzon Fernández *Popek* entrenatzen duen taldeak bihar irabaztekoan, maiatzaren 17an eta 24an Eibarraren jokatu den Euskadiko Txapelketarako sailkatuko da.



JOSE LUIS BERRA

Aranzadi Ikastolako nesken futbol taldeak finala jokatu du bihar Donostian.

TXAPELKETAK

Frontenis eta pala txapelketetan parte hartzeko izenematea eguenera arte zabalik

Kirol Zerbitzuak beste astebete luzatu du frontenis eta pala txapelketetan parte hartzeko izenematea. Oraingoz zappi bikoteak eman dute izena Frontenis Txapelketan eta Pala Txapelketarako, berriz, ez da inor apuntatu. Kirol Zerbitzuko bazkideek 12 euro eta gainerakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte txapelketan parte hartzearen. Interesatuak Kirol Zerbitzura (943 77 91 67) jo dezakete argibide eske.

Pala Txapelketa Angiozarren jokatu da eta fronteniskoa, Angiozarren. Kirol Zerbitzuko arduradunek esan dute biak maiatzaren 17an hasiko direla.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

16:30: Dedo Pafarru-Canalejas. Argandolas
17:30: Bayer-Argandolas. Aterpe

ZAPATUAN, KANPOAN

18:30: Artusamak-Aterpe. Bayer

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Bedarreta-Txipiron. La Quinta
10:30: Bedarreta-La Quinta. Txipiron
16:00: Artusamak-Canalejas. K. Piperrak
17:00: K. Piperrak-Argandolas. A Ze Flaxa
18:00: A Ze Flaxa-Fac. Las putas de Satan
19:00: Mongatxurak-Las putas. Pagomendi
20:00: Pagomendi-Bayer. Mongatxurak


DOMEKAN, KANPOAN

18:00: Pagomendi-Dedo Pafarru. Antolak.



JANTZIDENDAK ETA KIROLDENDAK

Bergara Piel. Espaloia 6
Cristina. Arruriaga 44
Gallastegi. San Pedro 15
Ikus-Bi. Irala 5
Jauja kirolenda. Irizar 3
Laket. Barrenkalea 35
Mujika jostundegia. San Martin plaza
Subijai. Irizar 1
Zatoia. Barrenkalea 4
Zubikua. Barrenkalea 24




OINETAKOAK ETA POLTSAK

Agirrebeña. Urteaga 5
Aldasoro. Espaloia 4
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15
Egizabal. Bidekurutzeta 13
Galarreta. Irizar 2
Lazkano. Barrenkalea 15
Lonbide. Bidekurutzeta 5
Retegi. San Pedro 18



BURDINDEGIAK- BRIKOLAKETA LOREAK ETA PENTSUAK

Ardatza brikolaketa. Masterreka 4
Gaztelu burdindegia. Mintegi 1
Gisasola burdindegia. San Pedro 8
Lislore lorenda. Barrenkalea 28
Mujika burdindegia. Bidekurutzeta 8
Narbaiza pentsuak. Masterreka 22




ZERBITZUAK

Barcelo bidaiak. Zurradero 4
Carasa, Cilveti, Lacort y Cia.
aseguroak.
Fleming doktorea 3
TGB aholkularitza. Matxiategi 36

**Tratu zuzenagoa, segurtasuna,
konfiantza eta gertuan dauzkazu!**

Bergara, zure zentru komertziala



HARATEGIAK

Igarza J.J. Irizar 3
Imaz S. Aranerreka 1
Leturia J.L. Artekalea 5
Leturia J.M. San Pedro 24
Rezola L.M. Matxiategi 7
Urzelai P. Ibargarai 7




PAPERDENDAK- TINDATEGIAK- BESTE

Elkar fotokopiadenda. Artekalea 1
Roy-PC informatika. Ibargarai 20
Ikasle. Fleming doktorea 11
Jolas. Barrenkalea 27
Marcó. Bidekurutzeta 44
Onena tindategia. Barrenkalea 29
Renteri tindategia. Ikerleku 4




ELEKTRAGAILUAK

Biltoki. Barrenkalea 6
Herran. Matxiategi 3
Jakina. Amillaga 10
Radio Bergara. San Pedro 25
Santos RTV. Masterreka 2




PERFUMERIAK

Amaia. Barrenkalea 25
Camacho. Bidekurutzeta 24
Egiluz. Irizar 3
Gojara. Irala 3
Igaro. Barrenkalea 35




OPTIKAK- BITXITEGIAK- ARGAZKIAK

Argazki. Barrenkalea 16
Etxeberria. Bidekurutzeta 16
Kiñu. Barrenkalea 35
Manso optika. Irizar 2




OSTALARITZA

Arrano. Kruz Gallastegi 5
Azpeitxi. Aranerreka 13
Canalejas. San Antonio 6
Erreki. Fraiskozuri 3
Euskalduna. Osintxu
Gaspar. Barrenkalea 31
Guria. Bidekurutzeta 5
Infernukua. Masterreka 23
Lasa. Ozaeta jauregia
Maxim's. Simon Arrieta 5
Miner banatzailea. Matxiategi 23
Pol-Pol. Komenio kalea 11
Sirimiri. Barrenkalea 3
Torrekua erretegia. Ibargarai 37
Zabala. Ibarra 14
Zumelaga. San Antonio 5



OIHALAK

Anezka. Espaloia 8
Artazi. Katabia z/g
Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13
Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14
Fernandez. Ibargarai 2
Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3
Maher. Bidekurutzeta 29




MERTZERIAK- LENTZERIAK

Gantxegi. Aranzadi 2
Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6
Igarza. Irala 5
Itziar. Matxiategi 1
Juana elgetarra. Zubieta 28
Mirari. Martoko 32
Nerea. Simon Arrieta 1
Phildar. Irala 5



JANARIDENDAK

Goxo-Toki gozotegia. Irala 3
Hurbil dietetika. Aranzadi 2
Itxas Eder arraindegia. Mintegi 5
Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6
Larrañaga gozotegia. San Pedro 9
Mujika gozotegia. Artekalea 3
Txukun. Fraiskozuri 6
Zapaterikua. Joan XXIII.a plaza.



ALTZARIAK, DEKORAZIOA

Biltoki. San Martin plaza 2
Edertu. Barrenkalea 23
Guridi. Artekalea 8
Kanela. Espaloia 10

Eider Carrasco irabazle Pazkoetako Kamisetarako Marrazki Lehiaketan

MONIKA BELASTEGI

Jardunek antolatutako Pazkoetako Kamisetarako Marrazki Lehiaketak badu irabazlea. 39 lagunek hartu dute parte eta irabazlea Eider Carrasco 13 urteko gaztea izan da. Jaietan bi lagunendako afaria irabazi du.

Eider Carrascoren lanak bikote dantzaria irudikatzen du eta epaimahiko kideen iritziz -Jarduneko Gazte Taldeko kideak-, batez ere, marrazkiaren espresibotasunagatik jaso du saria.

Parte hartu duten 39 lagunak Bergarakoak dira, eta adinaren kasuan, gehienak 13 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoak izan dira.

Saritutako lanarekin kamisetak aterako ditu Jardunek Pazkoetan. 200 inguru aterako ditu, gizonezko zein emakumezkoenak, eta herriko hainbat gunetan jarriko ditu salgai.

IRAKURZALETASUNA BULTZATU NAHIAN

Irakurzaletasunarekin lotutako hitzaldia antolatu du Jardunek maiatzaren 15ean, 19:00etan, kultura etxean. Iñaki Zubeldia izango da hizlaria eta honako gaia jorratuko du: *Ahozko hizkuntzatik abiatuta pozik eta gustura irakurtzea*.



MONIKA BELASTEGI

Eider Carrasco, irabazlea, kamisetari erantsiko dioten marrazki irabazlea erakusten.

kurtzea. Hitzaldia Euskal Idazleen Elkartearen *Literatura jarduerak* programaren barruan dago eta programaren helburua da literatura gizarteratzea, horretarako bi hurbilpen motaz baliatuz: literatura ezagutaraztea eta gizarteari literaturaz gozatzeko aukera zabaltzea.

GAZTETXOEN ARTEKO OLINPIADAK

Gaztetxoen arteko III. Olinpiadetan izena emateko epea gaur, egubakoitza, bukatuko da. Lau-

garren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleei daude zuzenduta. Izena Jardun elkartearen eman behar da, hiru euroren truke; elkarteak bazkide izanez gero, doan da. Parte-hartzea taldeka izango da eta taldeak gutxienez zortzi lagun eta gehienez hamar izan beharko ditu. Olinpiadak maiatzaren 17tik 21era arte jokatuko dira, zapatu arratsaldero. Honako jolasak egingo dituzte, besteak beste: Altxorraren bila, hockeya eta Bergara ezagutzen.

Margolan eta argazki erakusketak domekara arte

MONIKA BELASTEGI

Javier Merino margolariaren erakusketa ikusteko azken egunak dira, baita osoko bilkuren aretoan dagoen 36ko gerraren gaineko argazki erakusketa ikusteko ere. Domekan itxiko dituzte biak.

Domekara arte egongo da ikusgai Javier Merinoren margolan erakusketa kultura etxean. *Janariz* izena du, eta olio eta kolorezko arkatzez egindako koadroek osatzen dute. Orduetgia honakoa izango da: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 21:00etara; zapatuan

eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

GERRA GARAIKO ARGAZKIAK IKUSGAI OSOKO BILKUREN ARETOAN

Bestalde, domekan itxiko dituzte udaletxeko osoko bilkuren aretoan Espainiako gerraren gaineko argazki erakusketak: *Gehiago inoiz ez, gerrako irudiak 1936-1939* eta *Hazia erin zenutenoi*, Debagoieneko fusilatuen gainekoa.

Honako orduetgia dute: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era; zapatuan eta domekan, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era.

KULTURAPILULAK

Musika emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 22:30ean, Goriako kantuan

Bihar, zapatua, musikaz jantziko da Goriako kantina. Izan ere, musika emanaldia egongo da 22:30ean. Anastua Jazz Perku Band taldeak egingo du kontzertua. Taldeko kideetako bat, gainera, bergarra dugu, Iñaki Gabilondo, hain justu ere.

Horrez gainera, maiatzaren 12tik 18ra bitartean Ongizate Zerbitzuak antolatutako eskulan ikastaroetan diharduten emakumeek kultura etxean egin behar zuten erakusketa atzeratu egin dute. Erakusketa egin egingo dutela aurreratuko dute Udal iturriek, baina oraindik zehaztu barik dago noiz.



JAUNARTZEAK

Mirari

JANTZIDENDA

EZKONTZAK

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

GUREGAIK/ IKAS-BIDAIA

Mariaren Lagundiko ikasleak Kataluniara doaz

AINZANE IRIZAR

Datorren astelehenean, hilaren 12an, Kataluniarako bidea hartuko dute Mariaren Lagundia Ikastolako DBHko laugarren mailako neska-mutikoeek. Bost egun egingo dituzte hantxe.

Mariaren Lagundiko ikasleak Mediterraneoko kostaldera joaten dira urtero, eta halaxe egin-

go dute aurten bidaiara joango direnek ere. Cambrilsen hartuko dute ostatu, baina hara eta hona ibiliko dira han egongo diren bost egunetan. Besteak beste, Bartzelona, Tarragona eta Ebroke delata ikustera joateko irteerak egingo dituzte. Bestelako irteera bat ere egingo dute: Port Aventura parke tematikoan pasatuko dute egun bat.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 35 bat neska-mutiko joango dira ikas-bidaiara, eta

eurekin batera bi irakasle egongo dira.

Ikas-bidaia bizitzan behin egingen da, eta ondo antolatu behar izaten dute. Halaxe ibili dira Mariaren Lagundiko ikasleak ere, bidaiarako dena ondo-ondo prestatzen.

Bidaia ordaintzeko dirua lortzeko ere lan handia egin dute ikasleek. Orain dela urtebete inguru hasi ziren dirua lortzeko lanean: ikastolaren egunean taberna jarri zuten, DBHko hiru-

garren mailako ikasle zirenean.

Gabonetan kantuan irten ziren dirua batzeko. Ikas-bidaie-tarako dirua lortzeko ohikoa izaten da zozketak antolatzea, eta hori ere egin zuten. Bestalde, Errege bezperako kabalgatan parte hartu zuten, euro batzuk esku-ratzeko.


Azkenean, baina, iritsi zaie bidaiara joateko eguna. Astelehenean bertan joango dira, esan bezala, eta egubakoitzean itzuliko dira etxera.

BERRIGARA
Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 9a

E, TXO!

NAZIOARTEKO BEKAK
Gazteak kanpoko merkataritzan eta nazioarteko gaietan presta daitezzen eta horrela euskal enpresek kanpoan hedatzen jarrai dezaten beka emango ditu Eusko Jaurlaritzak. Beka horiek eskatzeko epea astelehenera arte, maiatzak 12, dago zabalik. Honako telefono zenbakian emango dizuete beken gaineko informazio gehiago: 945 01 99 82.

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



Menua martitzenetik domekara.

Karta martitzenetik domekara.

**Bazkari bereziak enkarguz:
627 818 212/
943 58 50 28.**

Menu begetarianoa.

Ogitartekoak, pintxoak, kazuelatxoak.



ETA GAINERA...
Maiatzaren 10ean 22:30ean kontzertua
ANASTUA JAZZ PERKU BAND
GORLA KANTINA

ZAHARRAKBERRI

San Joxepeko erretiratuen erronka, elkartearen funtzionamendua hobetzeko urratsak ematea

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen aurreko eguaztenean, apirilaren 30ean. Bazkideekin eta Zuzendaritzako kideekin batera Esther Larrañaga eta Fernando Etxeberria Diputazioko ordezkariak, Victoriano Gallastegi alkatea edo Jose Mari Alvaro LKSk zuzendaria egon ziren.

Jose Mari Alvarok erretiratuen elkartearen funtzionamendua hobetzeko LKS enpresak egindako lanaren berri eman zuen. Etengabeko hobekuntzaren kulturari eutsiz, erretiratuen asmoa elkartearen beharretara egokitzeko urratsak ematen jarraitzea da. Horrekin lotuta, San Joxepeko Gipuzkoako Nagusien Kontseiluak deitutako 2003ko Solidarioak lehiaketan hartuko du parte. Zaharren egoitzen eguneratzea da lehiaketaren helburua, eta Gipuzkoako 15 elkarte hartuko dute parte. San Joxepeko lagunek uztailaren 31rako izan beharko dute idatzita elkartearen birmoldaketaren gaineko proiektua. LKSk egindako lana hartuko dute oinarri.



San Joxepeko presidente Tomasa Zabaleta joan den asteko batzarrean. Haren ezkerrean, Jose Mari Alvaro LKSk zuzendaria.

ZABALETA PRESIDENTEAK KARGUA UTZI
Bestalde, Tomasa Zabaletak San Joxepe elkartearen presidentea kargua utzi du. Zabaletak sei urte egin ditu karguan, eta Zuzendaritza

batzordeak datozen egunotan izendatuko du haren ordezkoa. Datozen bi urteotan Nieves Gallastegi, Juan Iturralde, Mariasun Plazaola, Antolin Marchena

eta Jesus Ruiz de Azua izango dira Zuzendaritzako kideak.

Gaur egun elkarteak 1.642 bazkide ditu. Bergaran 65 urtetik gorako 3.000 lagun daude.

LABUR

Informatika ikastaroak erretiratuendako

Informatika hasiera, Internet, testuen edizioa eta web orrien diseinua egingo diren ikastaroak egongo dira San Joxepen. Ikastaroak 14 eta 24 ordu bitartekoak dira eta ekainaren erdialdean amaituko dira. Izenematea eta arazobideak 943 76 30 09 zenbakian.

Mendi irteera San Martzialera astelehenean

Urteko mendi irteeren programarekin jarraituz, San Joxepeko lagunek San Martzialera irteera egingo dute astelehenean, hilaren 12an. Irteera 16:00etan izango da erretiratuen egoitzatik, eta bazkideei parte hartzeko deia egin nahi die Zuzendaritzak.

Bestalde, datorren maiatzaren 21ean egun osoko irteera egingo dute Donostian. Igeldora joan eta Orion bazkalduko dute erretiratuek.



- Plastifikazioak din A4/A3 eta posterrak
- Fax zerbitzua
- Enkuadernazioak
- Eskolarako materiala
- Kautxozko zigiluak



- Fotokopia digitalak zuri-beltzean CDarekin



- Koloretako fotokopiak laserrean
- Eskaneatzeak koloretan makina digital bidez

Ongi etorri
Artekaleko
denda berrira

Leku berria, zerbitzu hobea.

E L K A R
Fotokopiak

Tel. 943 76 02 02 eta tel. eta faxa 943 76 58 16.
Posta elek. elkarcopias@terra.es



- Planoen kopiak, eskaneatzea eta ploteatzea

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Lehenengo karlistaldiari amaiera eman zion Marotoren eta Esparteroren arteko 'Bergarako besarkada' zein urtetan izan zen: 1829an, 1839an ala 1849an?

PINTOREBERGARARRAKGAUR

Jose Mari Agirre

EDU MENDIBIL

Azken 15 urteotan Eibarren bizi da Jose Mari Agirre (Bergara, 1945). Gaztetan hasi zen marrazketa lantzen, Miguel Okinaren laguntzarekin, eta gero Simon Arrietaren eskutik margo eskolak jaso zituen. Madrilen, Bartzelonan eta Valentzian ere hainbat margo ikastaro egin zituen. Orduetik hona ibilbide luzea egin du artearen esparruan: erakusketa mordoa egin ditu Estatu osoan, eta jasotako sarien artean 1999an Espinosa de los Monterosen (Burgos) lortutako lehen saria nabarmentzen du. Kritikak Agirreraren laneko gaiak eta estilistika zabala goraiatu izan du, eta lanotan dagoen kontzepzio kromatikoa eta aberastasiun plastikoa azpimarratu. Zera dio Jose Mari: "Pintura abstraktua eta surrealista dut gustuko, pintura moderno, nahiz eta enkarguz lan klasikoagoak ere egiten ditudan".

Orain dela 10 bat urte Aretxabale-tako Arte Eskolako zuzendaria izan zen eta egun Eibarko Arrate Kultura Elkarteko erakusketen arduraduna da. Etxean duen estudioan pintatzen du, eta uztailean Deban egingo duen erakusketa prestatzen dihardu.

"Pintura abstraktua eta surrealista dut gustuko, nahiz eta bestelako lanak ere egin"



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1.

Zein da Iker Azagirre bergararraren bikotea Bergara Hiria txapelketan?

- A/ Errarte.
- B/ Uriarte.
- C/ Esnaola.

2.

Nork irabazi du Jardunek antolatutako Pazko-etako Kamisetarako Marrazki Lehiaketa?

- A/ Leire Gómezek.
- B/ Eider Carrascok.
- C/ Juantxo Arregik.

3.

Zenbat bazkide ditu gaur egun San Joxepe erretiratuen elkarteak?

- A/ 1.642.
- B/ 1.350.
- C/ 2.123.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

RUBEN FRAILE erandako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Ruben!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Txukun / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Col-hogar

Komuneko papera. Lau biribilki.


1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



ELGETA
Maialen Aranzeta
Maiatzaren 9an, 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Mertxe Doval
Maiatzaren 12an, urteak.
Zorionak eta muxu bat!
Mikel eta Ander.



BERGARA
Ander Etxaniz
Apirilaren 27an, 2 urte.
Urte askotarako! Haizea,
Jon, Enara eta etxeokak.



BERGARA
Oihana Laskurain
Apirilaren 25ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Itsaso Igarza
Apirilaren 24an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Agiriano
Apirilaren 28an, 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Miren Santa Cruz
Apirilaren 29an, 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maider Oregi
Apirilaren 26an, 2 urte.
Urte askotarako!
Amaia eta gurasoak.



BERGARA
Maite Elortza
Maiatzaren 14an, 9 urte.
Urte askotarako!
Josu eta etxeokak.



BERGARA
Martin Azpiazu
Maiatzaren 1ean, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Manex Larrañaga
Maiatzaren 3an, 8 urte.
Urte askotarako eta musu
bat! Ama, aita eta Izar.



BERGARA
Garazi Agirrezabal
Apirilaren 26an, 7 urte.
Zorionak! Jone, Aitor,
gurasoak eta aitona-amonak.



BERGARA
Benito Dávila
Maiatzaren 2an, 7 urte.
Zorionak eta belarri
tirakada bat! Aita, bihotzez.



BERGARA
Julen Cabo
Maiatzaren 5ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Irantzu Albizuri
Apirilaren 22an, 3 urte.
Urte askotarako!
Egoitz eta familiakoak.



BERGARA
Miren Larrañaga
Maiatzaren 5ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Ainhoa eta Mikel.



ELGETA
Aitor Elkoro
Maiatzaren 8an, 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Ruth Mancho
Maiatzaren 5an, 4 urte.
Zorionak! Familiakoak
eta Sara ahizpa.




BERGARA
Lorea Palacios
Maiatzaren 3an, 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Irati ahizpa.



BERGARA
Miren González
Maiatzaren 9an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maider Azkargorta
Apirilaren 21ean, 23 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Paul Azkargorta
Apirilaren 30ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ARETXABALETAKO
Aritz Maiza
Maiatzaren 11n, 3 urte.
Urte askotarako eta musu
bat! Pedro J. eta Jeni.



BERGARA
Aritz Izagirre
Apirilaren 28an, 2 urte.
Urte askotarako!
Itziar.



BERGARA
Andoni Etxezarreta
Maiatzaren 10ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Maider Gorosabel
Maiatzaren 5ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Laura.



BERGARA
Andoni Errasti
Maiatzaren 5ean, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi!
Argazkiak emateko lekuak:
Bergara:
Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola:
Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Estitxu Lobato
Maiatzaren 6an, 19 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Sara Arietaleaniz
Maiatzaren 11n, 10 urte.
Urte askotarako!
Maitane, Josu eta Jokin.



BERGARA
Nekane Eskibel
Maiatzaren 13an, 40 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta gurasoak.

Maxim's
943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behean
943 76 21 80 / 943 76 06 37

IKUSBI
ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK
Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behean
943 76 59 54 BERGARA

Bolu
liburutegia
Enmarkazioak
Ispiluak neurria
Zurezko artikulua
Bergarako oleo eta lumatxoak
Koldo Eleizalde 1. Bergara. Tf. 943 76 70 60

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILUOK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 9a / 156. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Gerbasioaren omenezko hainbat ekitaldi antolatu dituzte domekarako

AINZANE IRIZAR

Domekan, hilaren 11n, emango dio Euskal Herriko Txistularien Elkarteak zilarrezko domina Gerbasio Legorbururi. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako eta aste bukaerarako. Dominaz gain, herriko gutuna eta bandera ere jasoko ditu Udalaren eskutik.

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak Gerbasio Legorbururi zilarrezko domina emateko erabaki zuen iazko batzar orokorrean. Domina hori, baina, ez du oraindik jaso Gerbasioak. Domekan, maiatzaren 11n, egingo dute, hain zuzen ere, domina emateko ekitaldi ofiziala herrian. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako eta aste bukaerarako herriko txistulariek, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak eta Udalak.



Gerbasio Legorburu txistulari taldeko hainbat lagunekin batera.

JAI GIROA GOIZEAN GOIZETIK

Goizeko hamarretan hasiko dituzte domekako ekitaldiak. Kanpotik datozen txistulariei harrera egingo diete ordu horretan, eta kalejira egingo dute gero.

11:30ean meza izango dute; eta 12:30 aldera izango da eguneko ekitaldi nagusia udaletxean:

hantxe jasoko ditu Gerbasioak zilarrezko domina, herriko bandera eta herriko gutuna.

Sari horiek guztiak jaso izana ospatzeko, bazkaria egingo dute frontoian, 14:00etan; 18:00etan, berriz, dantza saioa egingo da Herriko Plazan.

ARGAZKI ERAKUSKETA EGINGO DUTE

Herriko txistulariek, batez ere, lan handia egin dute ekitaldi hauek guztiak antolatzen. Horretarako Udalaren laguntza izan dute. Denen artean Gerbasioaren omenezko argazki erakusketa antolatu dute. Olaran etxean jarri-

ko dute erakusketa. Domekan zabalduko dute, ekitaldi nagusiaren ostean, eta zabalik egongo da domeka arratsaldean eta hurrengo aste bukaeran, zapatuan eta domekan; goizez, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldetan 18:30etik 20:00etara.

HERRITARREN HITZA / Kontxi Laskurain • Dendaria

Dendak

Hauze entzun dut kalean: "Dendariek ondo irabazten dute eta, gainera, lizentzia-zerga kendu egin diete. Zela da ba hau?"

Horixe azaldu nahi nuke aukera hau aprobetxatuta, ba askok ez dute jakingo komertziantek ondo laguntzen dugula Udalaren arkak betetzen; adibide bat: nire dendan, hiruhilabetean 3 m3 ur kontsumitzen dut eta 30 (minimoa) kobratzen didate; gainera, 0'67 eurotan. Etxean, berriz, 0'30 eurotan, eta zaborragatik etxekoa 10 euro eta dendakoa 31'78 euro kobratzen didate, eta

bi zerbitzuak oso gutxi erabiltzen ditut daukadan negozio motagatik.

Bestela ere, herria jasotzen bereziki ahalegintzen gara, talde eta elkarte deportibo, kultural, sozial, eta abarri zenbait laguntza ematen diegu eta. Horretaz gain, beste gastu dextereri aurre egin behar izaten diegu: aseguruak, zergak, argia, publizitatea... Baina herri txikietan behera



"Kontsumo arduratsua egiten hasi behar dugu"

doaz ia dendari denon salmentak. Ohiturak aldatu dira eta gazteengan nabarmenagoa da, gainera, joera hori.

Gauzak horrela, ulertzekoa da ni dendari nagoen 23 urte hauetan hainbeste denda itxi izana; gogoratzen ditut, besteak beste, Deltoso, Zubikarai, Isidoranekua, Visi eta Maria, Alzas, Elkoro eta Arla, Maripi, Itziar, Lamaiño-gaiñekua, Dina, Niño, plazako

fruta-denda, Ramón argazki denda, Pili estankoa, Irudi, Lazkano eta Alexander.

Jendeak komentatzen du Antzuolan denda-zerbitzuak falta direla. "Egon egon dira" baina zela erantzun dugu antzuolarrok? Urtean bi aldiz erosita, behar urgente bat sortzen zaidanean? Horrela dendaria ezin da bizi.

Uste dut erreflexionatu beharra daukagula guztiok, eta kontsumo kontziente eta arduratsu bat egiten hasi, bestela multinazionalak bakarrik egingo dute eta aurrera.

LABUR

Arrazakeriaren gaineko hitzaldia egunean, hilak 15

SOS Arrazakeria taldeko kide Agustin Untzurrunzagak hitzaldia egingo du, *Etorri-nak*. Gaur egungo egoera izenburupean. Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak antolatu du hitzaldi hori, eta datorren egunean, hilaren 15ean, izango da, 19:30ean. Olaran etxean.

Kukumarro Lehiaketan izena emateko aukera

Oraindik ere badago Kukumarro Lehiaketan izena emateko aukera. Udaletxean edo liburutegian eman dezakezue izena, maiatzaren 15a baino lehen. San Isidroko ferian, hilaren 17an, lehiaketan parte hartzen duten kukumarroak ikusgai jarri eta sariak banatuko dituzte.

1975ean jaiotakoek afaria egingo dute maiatzaren 31n

1975ean jaiotako antzuolarrek kinto afaria egingo dute datorren maiatzaren 31n Zumarragan. Afarira joan nahi dutenek honako telefono zenbakian haurtara deitu beharko dute izena emateko: 943 76 60 40 eta 943 76 64 01. Maiatzaren 24an izango da izena emateko azkeneko eguna.

KZGunea zabalik astelehenetik egubakoitzera

Gogora ezazue astelehenetik egubakoitzera dagoela zabalik KZGunea Olaran etxean. Arratsaldero zabaltzen dute, 16:00etatik 20:00etara.

Ikastarorik ez dagoen orduetan Interneten doan nabigatzeko aukera eskaintzen du KZGunea. Gelak atean bertan jarriko dituzte ikastaroen ordutegiak.

ELKARRIZKETA

XABIER AGIRRE/MUSIKARIA

“Diskoan ez ezik, Patxi Saizen aurreko bi maketetan ere hartu dut parte”

Patxi Saiz kantautore getariarrarekin diskoa grabatu du Xabierrek eta hilabete bukaeran argitaratuko dute, baina oraindik ez dakigu diskoaren izena. Ez da Patxi eta Xabierrek elkarrekin lan egiten duten lehen aldia.

Zelan suertatu zitzaizun Patxiarekin diskoa grabatzeko aukera?

Badira hamar bat urte elkar ezagutzen dugula; Korkoil taldean nengilenean ezagutu nuen Patxi. Korkoil taldeko kide bat, Patxi Olabarria, Patxi Saizen lehendabiziko maketarako konponketak egiten hasi zen, eta neuk ere hartu nuen parte maketa hartan; baxua jo nuen. Eta bigarren maketan ere egin genuen lan elkarrekin. Orduetik hona, baina, gauza gutxi egin dugu, zuzeneko emanaldi batzuk eskaini ditugu, baina besterik ez. **Zelakoa da argitaratzeaz duzuen disko hori?**

Musika lasaia egiten du, batez ere, Patxi Saizek; ez nuke jakingo haren musikaren bestelako definiziorik egiten. Doinu guztiak Patxi berak sortuak dira. Hitzak, berriz, batzuk Patxiarenak dira eta beste batzuk kantu zaharretatik hartuak.

Zuk zein musika tresnarekin hartu duzu parte diskoan?

Musika tresna autoktonoenkin: gaita, alboka, hainbat txistu mota...

Diskoa argitaratuko zizuen disko etxea topatzea ez ei da lan erraza izan.

Bai, halaxe da, dezente kosta zaigu disko etxea topatzea; izan ere, musika lasaia egiten dugu eta musika hori ez da saltzeko bate-re erraza. Gainera, Patxi argitaratzen duen lehen diskoa da hau, eta zaila izaten da lehen aldiz mundu horretan sartzea. Azkenean, Donibane Garaziko disko etxe batekin argitaratuko dugu.



A.I.

“Musika lasaia egiten du Patxi; ez nuke jakingo haren musika bestela definitzen”

Aurrerantzean zuzeneko emanaldiak ere egingo dituzue, ezta?

Bai, bai; orain zuzeneko emanaldietarako entseguekin dihardugu. Oraindik ez daukagu egutegi jakinik, baina dagoeneko hiru kontzertu zehaztuta dau-

“Nik uste dut laster grabatuko dugula bigarren diskoa; dagoeneko hasi gara entseguekin”

kagu Iparraldean. Espero dut Antzuolan ere egingo dugula kontzerturen bat.

Beste proiekturen bat badaukazu esku artean?

Bueno, nik uste dut bigarren diskoa ere laster grabatuko dugula; entseguekin ere hasita gaude.

KIROLA

Aritz Berraondok finalurreko partidua dauka domekan

Domekan, hilaren 11n, jokatuko du Aritz Berraondok bigarren mailako eskuz banakako finalurreko partidua, Galartza VI.aren aurka, Mungian.

Gogora ezazue final-laurdeneko partiduan 22-5 nagusitu zitzaiola Berasaluzeri.

Domekako partidua irabaziz gero, finala jokatuko du Aritzek, eta lehen mailara igotzeko aukera izango du. Izan ere, bigarren mailako txapelketa irabazten duena zuzenean igoko da lehen mailara. Galtzen duenak ere izango du mailaz igotzeko aukera.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 10
15:30: Antzuola-Arrate (2. erreg.)
17:30: Antzuola-Amara Berri (Gazteak)

PILOTA

Maiatzak 13 (Deba Arroko Txap.)
19:00: Olalde-Arrasate
Maiatzak 10 (Herri Paleta Txap.)
09:45etatik aurrera: Bigarren mailako finalerdia eta lehen mailako final aurreko azkeneko partidua

EMAITZAK

FUTBOLA

Lazkao 1 Antzuola 0 (2. erreg.)
Behobia 0 Antzuola 1 (Gazteak)



Gertu Gaek zerrenda aurkeztu du

Legez kanpo laga dute *Gertu Gae* herri plataforma, baina aurrera egiteko asmoa erakutsi du. Hala, udal hauteskuntzetarako zerrenda aurkeztu du, eta Mireia Unamuno alkatea izango da zerrendaburua. Hona hemen gainerako hautagaiak: Patxi Olabarria, Juan Antonio Iturbe, Olatz Lezeta, Andoni Azkargorta, Jose Antonio Iturbe, Andoitz Aranburu, Mamen Jauregi, Juan Jose Aranburu, Agurtzane Loidi, Iñigo Irizar eta Fernando Iturbe./A.I.

Tomas Gezalaga

Apaintetarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Juan Cruz

ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko maiatzaren 9a / 140. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76.92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Elgetako hauteskunde-mahaia osatuko duten herritarrak aukeratu dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI

Maiatzaren 25ean udaletarako eta Bazar Nagusietarako hauteskundeak izango dira, eta dagoeneko aukeratu dituzte egun horretan Elgetako hauteskunde-mahaian egongo diren kideak. Hiru lagun izango dira mahaian eta bakoitzak ordezko bi izango ditu.

Joan den apirilaren 29an (martitzena) egindako ezohiko osoko bilkuran, maiatzaren 25eko hauteskunde-mahaian egongo diren elgetarrak aukeratu zituzten zozketa bidez. Izaskun Larrea eta Sebas Arantzabal zinegotziak, Patxi Basauri alkatea eta Udaleko idazkaria egon ziren batzarraren. Eta zozketako emaitzen arabera honako hiru herritar hauek osatuko dute Elgetako Udaletxean egongo den hauteskunde-mahaia: Olaia Jiménez Arrietak (mahaiburua), Esteban Sarasqueta Arizmendiarririk (lehenengo mahaikidea) eta Mikel Elgoro Osak (bigarren mahaikidea). Maitel Retolaza Ojanguren eta Nerea Villa Arantzeta izango dira mahaiburuaren ordezkoak, M. Jose Agirregomezkorta Etxe-



Hauteskunde-mahaian egongo diren elgetarrak aukeratu zituzten, bozketa bidez, ezohiko osoko bilkuran.

ria eta Luis Antonio Alkorta Irarabal lehenengo mahaikidearenak eta Igor Irazabal Bolinaga eta Alberto Arakistain Ariznabarreta bigarren mahaikidearenak.

EGINBEHARRAK

Mahaikideek goizeko zortzietan egon beharko dute Elgetako udaletxean, eta, mahaia osatu ondoren, paperak, hauteskontziak...

modu egokian prestatuta daudela ziurtatu beharko dute. 09:00etan irekiko dituzte ateak, herritarrek botoa eman dezaten. Mahaiburuaren betebeharra hauteslea

mahaira hurreratzen denean haren datuak ozen irakurtzea eta, datuok zuzen daudela probatu ondoren, botoa hauteskontzian sartzea izango da. Horrez gain, gainerako mahaikideekin batera paperak modu egokian jarrita daudela ziurtatu beharko du egunean barrena.

Hauteskunde-mahaia arratsaldeko zortzietan itxiko dute, eta ordu horretatik aurrera mahaikideek, kontu-hartzaileek eta bertan dauden herritarrek bakarrik bozkatu ahal izango dute. Gero postaz jasotako botoak sartuko dituzte hauteskontzian. Amaitzeko botoen zenbaketa egingo dute: lehenengo, udal hauteskundeetako dagozkienak kontatuko dituzte eta Foru Aldundirako hauteskundeetako botoak gero. Mahaiburua emaitzak ozen irakurri eta aktak sinatu beharko dituzte azkenik, eta egunean barrena arazorik egon bada bertan azaldu.

Elgetan 827 herritarrek eman ahal izango dute maiatzaren 25ean Udaleko alkatea eta zinegotziak eta Bazar Nagusietarako kideak aukeratzeko botoa. Bestalde, elgetarrak izan eta kanpoan bizi diren beste 16 lagunek ere izango dute bozkatzeko aukera.

HERRITARREN HITZA / Iban Arantzabal • Goienako Telematika zuzendaria

Hauteskunde garrantzitsuak herrirako

Politika gustoko dogunondako ez da falta ezer. Ginda eta guzti etorri leike maiatzaren 25a. Munizipal-letan taldea aukeratzeko dogu. Ez inertziak, botuak ez dira-eta sigla honen edo haren jabetzakuak. Nere botua neuria da eta kitto! Gura dot aukeratzia. Eta zein da aukera onena? Talde lana: Derrigorra da eta gestionatzeko modu egokixena. Begiratuko dot ia zeinek osatzen daben talderik onena programak gestionatzeko. Badakit zein aukeratu. Herrirako proiektu barriak: Proiektuekin ahua betetzia ez da nahikua. Barrirak bai,

baiña itsutu barik. Gura dot dakaguenari ondo eustia, ze horretarako ez bagara kapaz... Badakit zein aukeratu.

Trasparentzia: Buzoneuak egittia: zein prespektiba dagon inbersiñuetarako, zein sarrera dagozen... baiña ez hori bakarrik. Gura dot zorra zein dan esatia be eta Udala ez hain ondo doianian danoi jakitzera emotia: Gardena izzatia. Badakit zein aukeratu.



"Aukeratu inertziak? Neure botua neuria da eta kitto!"

nahikua jatorra izatia, guapua edo guapia, berba jarixu onekua, etxe onekua, ondo

Partehartzaillia: Ez dot gura alkatia zein izango dan aukeratu eta konfidantza osua emotia lau urterako (eta bakarrik lau urterako). Nahi dotena da Udaletxia herrixan onduan egotia. Horretarako prentzau deixela herrixai bihar dan bestetan. Badakit zein aukeratu.

Programia: Ez da nahikua jatorra izatia, guapua edo guapia, berba jarixu onekua, etxe onekua, ondo

jantzitta ibiltzia... Derrigorra da programa bati emotia botua. Programa onenari. Zeri emon botua bestela? Balio daben botua emon bihar dogu, gero udaletxian programia defenditzeko. Badakit zein aukeratu. Aralar, EAJ edo Elgeta Auzolanianen artian gura neuke aukeratu eta aukeratu dot (bueno, beste bi be badare, baiña horrena ez dakit ezer...). Onenak lortu deixela, hala eta be, boto gehixen. Eta kapaz izan deilla beste bi alderdixekin gobernatzeko. Holan, eta bakarrik hola euko leuke Udalak gindia, hiru partiduen artian Udala gestiona. Interesatuek Miren Villarrengana jo beharko dute lehenbailehen. Irteeraren kostua 137 eurokoa izango da eta autobuseko bidaiak gain, hoteldago egonaldia ere sartuta dago prezioan. Argibideak 94 76 80 34 telefonoan/I.A.

LABUR

Erretiratuendako irteera Segovia eta ingurueta

Erretiratuaren elkartek maiatzaren 18tik 20ra bitarteko irteera antolatuta du Segovia, El Escorialgo Monasterioa, Valle de los Caídos, Madril, Avila eta La Granja bisitatuko dituzte gidari baten laguntzarekin.

Interesatuek Miren Villarrengana jo beharko dute lehenbailehen. Irteeraren kostua 137 eurokoa izango da eta autobuseko bidaiak gain, hoteldago egonaldia ere sartuta dago prezioan. Argibideak 94 76 80 34 telefonoan/I.A.

HAUTESKUNDEAK

Zerrendak legez kanporatzea salatuko du Elgetako plataformak

I.A.

Espainiako Auzitegi Gorenak 241 hauteskunde-zerrenda inpugnatu ditu, eta ezin izango dute maiatzaren 25eko hauteskundeetan parterik hartu. Horien artean dago Elgeta Auzolanean plataforma ere. Legez kanporatze horren aurka protesta egiteko, plataformak kale bilkura egingo du gaur.

Joan den maiatzaren 2an jaso zuten Elgeta Auzolanean plataformako kideek, Bergarako auzitegitik, euren zerrendak inpugnatu zituztelako berria. Zerrenda atzera botatzeko arrazoia da izenen artean aurrez Batasuna, EH edo HBren zerrendetan agertutakoak egotea. Elgeta Auzolanean taldekoek zera esan dute: "Plataforma berria da, herriko jende gehiago batu nahi duena, aurrez beste alderdietako partaide izandakoak daude, baina baita beste batzuk ere". Horregatik errekurtsoa aurkeztu zuten. Baina helegite hori onartu ez eta zerrenda berriz inpugnatu dutenez, beste errekurtso bat aurkeztu du plataformak Auzitegi Konstituzionalean, eta, erantzuna jaso zain dauden arren, ez dute ezer onik espero.



Zerrendako kideak eta Elgetarako programa aurkeztuko dituzte plataformakoek.

Horretarako, zerrendaren eta programaren aurkezpena egingo dute gaur, egubakoitza, 20:00etan, plazan. "Legez kanporatzearen aurrean protesta egiteko modu egokiena da. Herritarren sinadurek garbi erakutsi dute plataformaren zerrenda hauteskundeetan izatea nahi dutela, eta hori egingo dugu", esan digute plataformakoek. Aurkezpenaren ostean kale bilkura egingo dute.

Hauteskunde egunerako ere paperak banatuko dituzte euren zerrendarekin herritarren artean, eta gero, botoak balio barikoak izan arren, kontatu egingo dituzte. Euren asmoa Udalean lortutako botoen araberrako ordezkaritza izatea da. Horretarako, herriko gainerako alderdi abertzaleekin jarriko dira harremanetan, eta beraien proposamena azalduko diete.

AURKEZPENA

Zerrenda inpugnatu duten arren, maiatzaren 25eko hauteskundeetan aurkezteko asmoari eutsi egingo dio plataformak.



Ozkarbiko bazkideek elkartearen eguna ospatu dute

Ozkarbi Elkarteak bazkideek euren eguna ospatu dute aurten ere. Herriko kaleetan trikiti doinuz lagunduta txikiteoa egin ostean, bazkaritara batu ziren elkartearen bertan. Ozkarbik 200 bazkide inguru ditu, eta 45 elkartu ziren. Bazkaria Agur, jaunak! abestuz hasi zuten eta bazkalaristean ere ez zen kanturik falta izan/I.A.

JAIK

Danborradarako entsegua zapatuan

I.A.

Herriko jaietan, uztailaren 5ean, danborrada egongo da, urtero moduan. Danborra modu egokian jotzeko beharrezkoak dira entseguak, eta bihar, zapatua, arratsaldean, lehen entsegua egingo dute danborradarako izena eman duten herritarrek.

Bihar, zapatua, maiatzak 10, hasi eta Elgetako jaietara bitartean, danborradarako entseguak egingo dituzte zapatu arratsaldero Espaloia aretoan. Hala, umeen txanda izango da lehenengo, 16:30ean, eta 17:30ean nagusiek hartuko diete errelebia.

Uztailaren 5ean izango da danborrada, eta, azken urteotan moduan, Arrasateko Musika Bandak egingo die lagun danbor eta barril jotzaile elgetarrei.

Aurtengo danborradak izango du berritasunik: besteak beste, herriko umeek eta nagusiek batera estreinatuko dute Elgetako ereserkia.

JAIETAKO BATZARRA

Herriko jaietako egitaraua presatzen hasiak dira elgetarrak, eta dagoeneko programan azken uki-tuak egitea besterik ez zaie falta. Horretarako, datorren eguaztenean, maiatzaren 14an, herriko udaletxean bilera egingo da, 21:00etan.



Espaloia aretoan izango dira entseguak zapatu arratsaldeetan.

LABUR

Abian daude Elgetako areto futbol eta ibarreko lau t'erdiko txapelketak

Maiatzaren 3an Elgetako Areto Futbol Txapelketako hiru partidu jokatu ziren: Añiketan taldeak 10-4 irabazi zion Bar El Arco taldeari, Txapelak taldeak 10-5 irabazi zion Komando Piperrak taldeari eta Vicios eta Chievo taldeek berdindu egin zuten. Bestalde, ibarreko Lau t'erdiko Pilota Txapelketa ere jokatu ari da, eta Peñalver eta Ibarluzea elgetarrak lehenak dira sailkapenean.

Posta bidezko botoaren gaineko informazioa emango du EAJ/EA koalizioak

Elgetako EAJ/EA koalizioak hauteskunde-bulegoa ireki du, maiatzaren 25eko hauteskundeetan botoa posta bidez eman nahi duten herritarrei laguntzeko. Bulegoa Domingo Iturbe kaleko 8. zenbakian dago, beheko lokalean. Interesatuak 19:00etatik 20:00etara jo ahal izango dute bertara gaur, egubakoitza, maiatzaren 9an eta 13an.

Erretiratuen Elkarteko urteroko batzarra bihar, maiatzak 10, Ozkarbin

Elgetako Erretiratuen Elkarteak bazkideen urteroko batzarra egingo du bihar, zapatua, 17:00etan, Ozkarbi elkartearen. Batzarrean iazko balantzea egingo dute eta aurtengo ekintzen berri emango dute. Batzarrean ostean askaria (merienda) egongo da bertaratzen direnendako. Elkarteak Zuzendaritzak herriko erretiratuak batzarrean joateko dei egin nahi die.

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Goizperko
langileak,
1965ean

Antzuola herri industrializatua izanik, garrantzi handia dute bertako herriko enpresek, batez ere, Elayk, Matz-Errekak eta Goizperrek, horiexek dira-eta handienak.

Oraingo astean Goizper enpresako langileek 1965ean inaugurazio ekitaldi baten ondoren ateratako argazkia dakarkizuegu. Goiko pabilioi berria inauguratu zuten egun hartan.

Garai hartan hogeitabat langilek ziharduten lanean Goizperren; ordutik hona, baina, izugarri hazi da enpresa eta gaur egun 160 langiletik gora ditu Goizperrek.

Argazkian azaltzen direnetako zortzi bat lagunek sortu zuten enpresa, eta handik gutxira hasi ziren langile berriak sartzen.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara, makurtuta, honako hauek: Jose Mari Kortabarria, Zaragozako ordezkari bat, Jabier Arregi, Salvador Olabarria eta Julian Lizarralde.



Zutik, ezkerretik hasita: Cipriano Pildain, Antonio Igartza, Luis Pildain, Gregorio Arbulu, ezezaguna, Koldo Madariaga, Pako Legorburu (atzean), Gerbasio Legorburu, Kaxiano Larrea, Mateo Aranguren eta Abarrategi.

Argazkia: Antzuolako Udala

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARa (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

Kalegoi, 80ko
hamarkadan

Azkeneko hamarkadetan herria aldatu egin dela bistakoa da, batez ere, auzune berriak sortu direlako. Baina, herriko erdigunean ere, alde zaharrea, alegia, izan dira zenbait aldaketa.

Oraingo astean 1980ko hamarkadako argazki bat dakarkizuegu, Kalegoi ateratakoa, hain zuzen ere. Garai hartan Galartza enpresa zegoen tokian etxebizitza berriak egin zituzten.



≈1980

Galarza hermanos y Arbulu enpresa ikusten dugu honako argazkian. Ordurako itxita zegoen lantegia.



2003

Lantegia herriaren erdigunean zegoen, eta itxi zutenean, etxebizitza berriak egin zituzten han-txe, Kalegoiko goieneko zatian, hain zuzen ere.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24.
BERGARA
943 76 13 35

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA


Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Elgetako Udala




2003ko AURREKONTUA


2002.12.25ean onartua




Barne saila: %14,10




Kult./Euskara/Turismoa: %8,90




Baserritarrak: %3,10




Hezkuntza: %0,45




Hirigintza/Ingurumena: %60,55



Osasuna: %8,30



Finantzak: %3,17



Kirolak: %1,43


INBERTSIOAK 2003

	Eurotan	Pezetatan
Pagatza industrialdeko urbanizazioa	1.502.530	250.000.000
Espaloia aretoa egokitzea	248.833	41.402.259
Pagatza industrialdeko planeamendua	136.746	22.752.550
Eguneko zentroa, D. Irala kalea	133.154	22.154.931
Uriarte auzora ura eramatea	78.132	13.000.000
Torrealdeko urbanizazio proiektua	60.101	10.000.000
Berraondokuako aparkalekuak	42.071	7.000.000
Planeamenduko arau subsidiarioak	36.361	6.050.000
Semaforoak	31.337	5.214.000
Maalako parkea hobetzea	21.035	3.499.999
Eguarbitzan zuhaitzak sartzea	15.902	2.645.870
Irisgarritasun plana: barrerak kentzea	13.655	2.272.001
Salbador kaleko proiektua	10.692	1.779.001
Maala aldeko planeamendua	8.492	1.412.880
Kiroldegian hobetze lanak	8.381	1.394.436
Plazako eserlekuak	8.074	1.343.500
Torrealde 5erako bidea	7.210	1.199.663
Lur sailak erostea	7.010	1.166.386
Informatika tresnak	3.726	619.964
Asentzion ura jartzea	3.600	598.990
Kantoiak pareko lorategia ureztatzeko sistema	3.000	499.158
Mapa toponimikoa	2.822	469.560
Umeentzako jolasak	2.572	427.898
Frontoi zaharrean umeentzako jolas lekua	2.404	400.000
Eskoletako berogailua	1.971	327.985
Ingurumena	601	100.000
DANERA	2.390.412	397.731.031


EBOLUZIOA

Eurotan

AURREKONTUAK



INBERTSIOAK



GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

